

MUNDUARI ITZULIA

80 EGUNETAN




Glu Glu familia osoarentzako antzezlan berri bat aurkezten du, elkarbizitzaren alde egiten duen abenturazko istorio bat. Abiapuntua “Munduari itzulia 80 egunetan” liburu ospetsua izango da, Julio Vernereren eleberrian oinarritutako bertsio libre. Glu Gluren lanetan ohikoa den bezala, antzezlanaren tonu nagusia komikoa eta musikala izango da.

Liburu ospetsuak Phileas Fogg eta Passepartouten gorabeherak kontatzen ditu, munduari bira laurogei egunetan ematea lortzea dute helburu. Proposatutako egokitzapen honetan, gure herritik irten gabe mundu osoko pertsonekin bizi garela erakutsi nahi dugu, bai eskolan, bai gure kale, auzo eta parkeetan ere.

Julio Vernek eleberrian giro alai eta une komikoak proposatzen ditu, eta hori ere eszenatokia eramango da. Idazle frantsesaren kontakizunak, estiloaz gain, erritmo bizkorra planteatzen du; azken finean, abenturazko istorio bat da, eta halaxe izango da antzezlanaren ere. Eleberriaren gatazka eta helburu nagusia munduari 80 egunetan bira ematea da. Emanaldiaren kasuan ere erronka ederra izango da: 80 minututan herritik irten gabe mundu osoko pertsonekin bizi daitekeela erakustea.

Obra sortzeko, trama nagusia hartuko dugu hari narratibo gisa, baina gure errealitatera egokituta. Liburuko eszena mitiko batzuk emulatuko dira eta pertsonaia berriak sortuko ditugu beharrezkoa izango den garapen dramatiko eraikitzeko.




Itoitz eta Urdiñe neba-arrebak osaba Passepartout eta izaba Auodaren etxean opor egun batzuk igarotzen ari dira. Passepartout *Ilargiaren Zirkuko* akrobata da, eta mundu osoan zehar ibili da harekin bere artea erakutsiz jira-biran. Izaba Auoda *Planetako Doktoreak* elkar-teko medikua da, baliabide gutxien dituzten munduko lekuetan osasun-laguntza ematen duen elkar-tea.


Antzerki-emanaldia izaba-osabek Julio Vernereren “Munduari itzulia 80 egunetan” nobela mitikoa ozen irakurtzen amaitzen dutenean hasiko da. Orduan, ilobek esango dute ez dela beharrezkoa munduan zehar bidaiatzea jatorri eta arraza desberdinetako pertsonak ezagutzeko. Haiek eskolan eta herrian mundu osoko pertsonekin egunero bizi dira.

Momentu horretatik aurrera, herritik buelta hori ematera jolasten hasiko dira jatorri desberdineko pertsonak ezagutu eta haiekin bizitzeko. Ezagutuko duten pertsonaia bakoitzak bere sustraiak, ohiturak eta aberastasun kulturalak erakutsiko dizkiete. Kasu honetan, eleberrian bezala, erlojuak berebiziko garrantzia izango du, baina 80 egunen ordean, 80 minutu izango dira, eszenako emanaldiaren ia denbora erreala.

Passepartout eta Auodaren etxeko ganbaratik joko eta fantasia bidelagun, planetako bidaiari handiek mundu, egoera eta pertsonaia ezberdinak birstortuko dituzte; hala nola Txina eta bere herensugeak, Erdialdeko Amerika, India, Nigeria edota Saharako basamortua.



Azken batean, elkarrekin bizi eta ikasten dugun etorkin askoren jatorriek gure egunerokoa eta gizartea osatzen dute. Jokoak, fantasiak, abenturak eta komediak elkarbizitzaren aldeko benetako gizarte plurala irudikatuko dute.



Abesti eta dantzek antzerki-ibilaldi honetarako hariak izango dira, eta Passepartout-en zirku-elementuek leku exotikoak eta garraiobideak irudikatuko dituzte, hala nola, itsasontziak, trenak edota globoa, hori guztia etxeko ganbaratik mugitu gabe.

Ekoizpen berri honetarako inguratzeko soinuari deritzonari esker obran murgiltzeko esperientzia planteatzen dugu. Publikoa ez da lekuko soila, abenturan murgiltzea da xedea. Ikusleak gertaeren lekuetan izango dira, entzundakoari esker eszenatokitik eta besaulkietatik bidaiari egingo dute. Asmoa ikusleek dramaturgiaren parte izatea da, zer eta, soinuari esker. Hau da, ikusleago abenturaren parte aktibo izatera gonbidatuko dugu.

Horretarako soinua ez da soilik eszenatokiko iturri konbentzionaletik etorriko, baita estrategikoki jarritako iturrietatik ere. Entzumenaz baliatuta ikusleek leku anitzetako giroa biziko dute eta garraiobide bakoitzak igorritako emozioak eta dardarak sentituko dituzte.



glu glu
94 412 48 01
todosonrisas

www.gluglu.eus info@gluglu.eus

3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Familiakoa. Iraupena: 59'. Hizkuntza: Euskera
Informazio gehiago gure webean: www.gluglu.eus